



HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2017/04/05

BILERA ZENBAKIA:4

ORDUA ETA LEKUA: Arratsaldeko 19:00etan

PARTEHARTZAILEAK: Tere, Maddi, Ainhoa, Maite, Rosi, Marijo, Amaia, Bixenta, Joxeluis

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. KULTUR EKINTZEN BALORAZIOA ETA AURRERA BEGIRAKO EKINTZAK.

- Bi ero diskotekan antzerkia: Balorazio positiboa egiten da, batetik parte hartu zuen jende kopuruarengatik. Bestetik emankizuna bere ere kalitatezkoa izan zela eta antzerkiak zabaltzen zuen mezua ere geneuzkan helburuekin bat zetorrela.
- Bodegara irteera. Jende gehiegi izan ez bazen ere, joan zirenen aldetik oso positiboa ikusten da.
- Sagardotegia: Apirilaren 22an izango da, Larregain sagardotegira. Apuntatzeko azken eguna apirilak 15.
- Apirilak 26 Oihana Kortazah hitzaldia.
- Apirilak 30. Mendi irteera.
- Kultura batzordea apirilak 19, arratsaldeko 18:30etan.
- Korrika batzordea, balorazio bilera maiatzak 3
- Festa batzordea lehen bilera maiatzak 3, korrikakoaren ondoren.

2. ELKARTEEN EGUNAREN ANTOLAKETA.

- Elkarteen eguna antolaketa prestatzeko bilera. Eguna jartzen da ekainaren 14, asteazkena, 18:00etan. Herriko plazan egitea pentsatzen da batzorde parte hartzaileak bilera geletatik kalera atera daitezen eta ikusgarri egin daitezen.
- Klean egingo danez, bilera zerbait bisuala eta informala izan



dadin nahi da

- Parte hartze lan talde ezberdinak eta hauek barne hartzen dituzten elkarteek urte guzti hauetan egin dituzten lorpen kuttunenak nolabait argazkitan panel edo modu grafiko batean agertzea.
- Bestalde, herriarentzat erreferente izan direnak baina galdu direnak ere agertzea nahiko genuke ze sentrazio sorrarazten duen jakiteko: Herri eguna, Oriora irteera... Agian hausnarketa baterako bide izan daitezten.
- Erkudenekin elkartuko gara ea hau grafikoki nola adierazi pista batzuk ematen dizkigun.
- Elkarteek mezua jaso dute eta hurrengo bilerarako lanak eginda ekarri beharko dituzte.
- Bestalde beste bi lantaldeei gonbidapena pasako zaie ea parte hartu nahi duten. (Maddi).

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Beraientzat lorpen izan direnen argazkiak lortzea	Maiatzak 17	Elkarte guztiak
Hurrengo herri bizitzan emandako pausuen berri ematea	Maiatzak 17	Maddi
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera apirilaren 17an, arratsaldeko 7etan. Abuztuko jaiak bai ala ez.		